

## Euskaldunak eta enkueta bat

Deia, 1977-06-19.

Irakurri berria dut Bizkaiko Cámara de Comercio, Industria y Navegación-ek eskatuta egina izan den enkueta baten azalpena. Bizkaian, %71,21ek ez du euskerarik ulertzen, %8,91k ez du hitzegiten; %6,11 hitzegiten du, baina ez du irakurtzen, eta % 27,49k bakarrik egiten dituzte biak: hitzegin eta irakurri.

Hau batetik.

Bestetik, enkueta honen helburu nagusia, euskaldun idiosinkrasiaren eraginak ezagutzea izan da, eta aurkitu duena "harritzekoa" da: *gazteen* artean, %38,3ek ez daki Bizkaiko hixtorien tutik ere, eta %10,9k bakarrik daki zerbait; *zaharragoen* artean oraindik haundiagoa da ezjakintasun hau: %52,4k eta %7,6k bakarrik daki zertxobait.

Hau jakiteko ez dut uste enkueta haundirik behar denik. Nahikoa da premisa hau ezagutzea: erakusten ez denik ez da gehienetan ikasten.

Irakaskintzan ez da oraindik honenbesteko milagrorik egin.

Harriturik geratzen naiz ni espainol batek gure hizkuntza eta kulturaz dugun hauzi hau ulertzen ez duenean. Ez jakina edo malizia behar da hontarako izan. Guk erakutsi ez diguten hori jakiteko behar genuen mekanismo beraz jakin behar luteke hoiak ez dakiten euskera edo prantzesa.

Honek zera gogora arazten dit poeta batek ziona: "Harritzekoa de, Frantziako haur guztiak egiten dute frantsesez".

Lotsa ez da guretzat; guri erakutsi ez diguten Euskal Historia eta Kultura eta Hizkuntza ez da gure erruz izan, espainolen erru ofizial eta faszistaz baizik, eta lotsa, inorentzat bada, espainarrentzat behar du izan.

Argi dagoena da, Espainiak gure herriarenganako heziketan eta kulturaren izan duen politika, koloniala izan dela.

Frantziak Argelian erakusten zuen, eta orain dela gutxi arte, argelitarren arbasoak galoak zirela ("Nos encetres, les gaulois"). Indian orain dela urte batzuk arte, ingelesak, eta bere gisa, idatzitako India-ren *kolonizazioaren* historia irakasten zuten, eta orain indiarrek berea idazten hasi direnean, mundu hixtoriko guzia aldatu zaie. Hego Afrikako beltzak ez dute oraindik eskolan nondik nora etorriak diren ikasi. Hala ere, suerte bat badute; ezin diete zuriak direla esan. Guri espainarrak erakutsi digutena, badakigu.

Zertaz ari zaizkigu hemen enkueta egiten?

Hemen eman den dato hontan bertan aurkitzen dugu esaten ari garen argigarri bat: gazteak baino zahartxoagoak direnak historia gutxiago dakite; zergaitik?; azken urte hoietan gaztetxoak ikastolak izan dituztelako; eta joan ez direnak ere, giro zaalxoagoan eta informazio gehiagorekin heziak izan direlako.

Ez da beste milagrorik.

Bada, gero, enkueta honen beste alor bat, eta hau jakingarriagoa, noski.

Ia *euskaldun*, *espaniar* edo *europear* sentitzen diren galdera egin diete haurrei; eta hara hemen aurkitu dutena: Herritarren artean ("entre los nativos"), %8 batez ere espainiar sentitzen da; %78,4, euskaldun, eta %11,72 europear. Ez dakit zergatik ezin den euskaldun eta europear batera izan. Galdera berau "marginales" deitzen dieten beste haurrei ere egin diete, eta hemen, %26 espainiar bezala agertu da; %43,4, *batez ere* euskaldun bezala, eta %21,6, europear sentitzen da. Galdera berau orain dela hogeitun urte egin izan bazen, erantzun hoiek ez ziren posible izango.

Giroa eta ikas-bideak dela merio.

Eta azkenik, inmigrantei egin zaie galdera berdina; *herritasun* aldetik azken mailako diren hoietatik: %59,1 espainiar sentitzen da, %13,8, euskaldun, eta %17, europear. Enkuesta hontatik guretzat jakingarria dena da, giroa argitzen dihoala, bai euskerarentzat (eta egunkari hau bera, lekuko) eta baita beste euskal alor guzietan ere.

Laster Euzkadin bizi diran haur guziak bere gurasoak baino euskal histori gehiago jakingo dute, eta euskera gehiago ere bai. Bestalde, haur gehiago sentituko da europear, eta itxaropena ba dugu, euskaldun ere.